



## AUTOBUSAK EROSTEA

### Maila aurreratua

### Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

**OHARRA:** Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak ezartzen duenez, bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publikoa erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuek eskaini beharko dute.

Zerbitzuaren ibilbideek eskaintzen dituzten premia eta aukeren arabera eta erabilgarri dagoen erregai-hornidurarako edo kargarako euskarriaren azpiegituraren arabera, komeni da kasu bakoitzean egokitzat jotzen den motorizazio-mota bakoitzerako sortak zehaztea eta horietako bakoitzean ingurumen-irizpideak sartzea.

## 1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

### 1.1. Kontratuaren xedea

Hasteko, ingurumen arloko irizpideak aintzat hartuko direla azpimarratu beharra dago:

#### 1. koadroa

Autobusen erosketa, pertsonen garraio publikoak eragiten dituen inpaktu kaltegarriak murrizteko ingurumen-irizpideetan oinarritutakoa.

## 1.2. Derrigor bete beharreko espezifikazioak eta esleipen irizpideetan baloragarriak diren espezifikazioak

### 1.1.1. Autobusen ezaugarriei buruzko irizpideak

#### 2. koadroa

Ibilgailuek «ECO» kategoria izan behar dute gutxienez, DGTren sailkapenaren arabera<sup>1</sup>.

#### 3. koadroa

Enpresek adierazi behar dute ibilgailuek zer neurri dituzten eraginkortasun energetikoa eta kontsumo baxua izateko. Neurri horien artean, honako hauek derrigor bete behar dira:

- Konbustio-gasen irteerak bidaiariak sartu eta irteteko erabiltzen duten atearen aldean ez egotea.
- LED bidezko barneko eta kanpoko argiztapena izatea (aukerazkoa faroetan).
- Pneumatikoen presioa automatikoki kontrolatzeko sistema izatea edo [kontratzailearen instalazioetan beharrezko ekipamendua baldin badago] operadorearen instalazioetan presioaren kontrola egiteko sentsoredun sistema izatea.
- Kontsumoa denbora errealean adierazteko sistema izatea (takometroan integratua).
- [Zerbitzua eta langileen lana hobetzeko, informazioa erabiltzea aurreikusten bada eta gainkostu hori aurrekontuan aurreikusten bada] Kontsumoa eta gidatze-eredua monitorizatzeko sistema telematiko bat integratua izatea.

#### 4. koadroa

Baloratuko da ibilgailuek energia-kontsumo txikiagoa (kWh/km-tan) izatea, UITPren (Garraio Publikoaren Nazioarteko Elkartearen) SORT estandarren edo baliokidearen arabera.

<sup>1</sup> Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak eta hura garatzen duten erregelamenduek betebeharraren salbuespenak aurreikusten badituzte, justifikatutako kasuetan, «C» kategoria eskatu ahal izango da, «ECO» kategoria eskatu beharrean, hau da, gasolina edo gasolioa izatea eta EURO VI estandarra betetzea.

**5. koadroa**

[ibilgailu elektriko huts edo hibrido entxufagarrien kasuan, zehaztapen tekniko bat gehitu beharko da baterien bizitza baliagarriari eta bermeei dagokienez, eta iraupen handiagoak balioetsi beharko dira. Fitxan ez da ezartzen erreferentziazko baliorik, azkar eboluzionatzen duen eremua delako. Horregatik, erakunde kontratatzaileak kasu bakoitzean informazio berriena ebaluatzea gomendatzen da, horri buruzko irizpideak definitu aurretik].

**6. koadroa**

Ibilgailuaren aire egokituko sistema 150 edo 150 baino gutxiagoko GWPa (100 urteko aldirako, CO<sub>2</sub>-a erreferentziaz hartuta) duen gas hoztaileaz funtzionatzea balioetsiko da. Gas-nahasketa bat erabiliz gero, potentziala gas bakoitzak pisuan duen ehunekoaren arabera kalkulatu da formula honen arabera:  $\sum [\text{gasaren}_i \% \times \text{gasaren}_i \text{ PCA}]$ . PCA balioak 517/2014 (EB) Erregelamenduaren eranskinetan daude.

**7. koadroa**

Ibilgailuak biskositate baxuko motorrerako olio lubrifikatzaileak erabiltzea balioetsiko da, hau da, SAE 0W30 edo 5W30 mailako olioak edo baliokideak.

**1.1.2. Autobusen PNEUMATIKOEIburuzko irizpideak****8. koadroa**

Autobusen pneumatikoei ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- Eraginkortasun energetiko altua, pneumatikoen derrigorrezko etiketen sailkapeneko A klaseko eraginkortasun energetikoa -(EE) 1222/2009 Erregelamendua-.
- Zarata-emisio baxuak, pneumatikoen derrigorrezko etiketen sailkapeneko 1. edo «baxua» klaseko zarata-maila -(EE) 1222/2009 Erregelamendua-.
- Gutxienez [zehaztu ildoaren ohiko baldintzetan oinarrituta] mailako azalera-itsaspena, pneumatikoen derrigorrezko etiketen sailkapenean oinarrituta - (EE) 1222/2009 Erregelamendua-.
- [zehaztu kilometro kopuru minimoa ibilgailu motaren arabera] baino balio-bizitza handiagoa.

## 2. Kontratua gauzatzeko baldintzak

### 9. koadroa

Esleipendunak, ibilgailuen balio-bizitza osoan zehar [zehaztu balio-bizitza, normalean 10-12 urte artekoa], ibilgailuek behar dituzten ordezeko piezen, osagaien eta ekipoen hornikuntza bermatu behar du.

## 3. Esleitzeko irizpideak

Esleipen-irizpideetan xehetasunez zehaztu behar da zein ponderazio emango zaion elementu baloragarri bakoitzari, baita ebaluatzeko formula edo parametroak ere.

Adibide gisa, balorazio-irizpideak aurkezten dira, formula matematiko bidezko balorazio automatikokoak <sup>2</sup> eta formula matematikorik gabeko balorazio automatikokoak bereizita

### 10. koadroa

#### **Formula matematiko bidezko balorazio automatikoaren irizpideak**

- Energia-kontsumo txikiagoa [13raino]
- Gas hozgarriak, PCA  $\leq$  150 [5eraino]

#### **Balorazio automatikoko beste irizpide batzuk**

- Motorrerako biskositate baxuko olio lubrifikatzaileak onartzen ditu [2]

---

<sup>2</sup> formula matematikoak bat baino gehiago izan daitezke (hiruko erregela sinplearen arabera, alderantziz proportzionala, desbideratze estandarraren arabera, etab.), eta bakoitzak eragin desberdina izango du eskaintzen arteko bereizketan; beraz, kasu bakoitzean merkatuaren errealitatearen araberako formula egoki bat ezarri beharko da, eskaintza bakoitzaren arteko aldeak proportziorik gabeko neurrian ez desitxuratzeko.

## 4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena

Aurkeztutako eskaintzak eta dokumentuak ebaluatzeko lana erraztearren, pleguan bertan zehaztuko da dokumentazioa nola aurkeztu. Informazio hori lizitazio-deialdian zehaztuko da, balizko lizitatuzaileek behar beste denborarekin jakin dezaten.

### 11. koadroa

Eskainitako **produktu bakoitzerako**, hurrengo dokumentazioa aurkeztu beharko da, honako modu hauetan zehaztuta:

- a) **Produktuaren baldintza espezifikoen fitxa** (1. eranskina)<sup>3</sup> behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Fitxa horietako bakoitzari grapaturik, lizitatuzaileak adierazitako espezifikazioak (bai derrigorrezkoak, bai baloragarriak) **betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa**.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

<sup>3</sup> Ikusi kapitulu honetako “Checklist hornitzaileentzat” dokumentua, <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak> («Errepide bidezko garraio publikoko zerbitzua» atalean) webean eskura.